

Prest!



BERBETAN: **ITZIAR MUJICA USOBIAGA** IRAKASLE ERRETIRATUA

ERREPORTAJEA: **KIOSKORIK EZ DEUSTURENTZAT** BARKUA: **AUZOAN ERROTUA, ETA HARATAGO**

24-225-226-227-228-



Sustatzailea



Babesleak



Laguntzaileak

Hedabide honek honako erakundeen dirulaguntza jaso du, baina BLB Komunikazioa Kooperatiba Elkarteak da edukiaren erantzule bakarra



Babestu Prest!

urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bidali zure datuak ondoko helbideetara:

Izen-abizenak
Helbidea
Telefonoa
E-posta
Kontu zenbakia (Iban)

prestharpide@gmail.com
94 447 10 42
Ramon y Cajal 42 / 48014 - Deustu

aurkibidea

Angel Prieto Fidalgo - Atxarte Salvador Navarro			Iritzia	4
Maite Sarasola Isazelaia			Gureak kanpoan	5
e	erreportajea Kioskorik ez Deusturentzat			6
	Zaila da imajinatzea Done Petri plaza kioskorik gabe. Argazkirik zaharrenek esaten digutenaren arabera, behintzat, 1890. urtean musikaren kioskoa ere altxatzen zen Deustuko udaletxearen eta herriko eskolen aurrean.			
Arangoitiko eskola			Eskolak	10
Deustuar kortsarioak XVIII. mendean (eta II): Gran Carlos fragata			Behin batean	12
Ekonomia soziala / Klima aldaketa		a	Artikulua	14
b	berbetan ITZIAR MUJIKA USOBIAGArekin			16
	Pandemia bete-betean erretiratu zen 38 urtez irakasle izan eta gero. Azken 12 urteak Deustu ikastetxean zuzendari gisa eman ditu Itziar Mujika Usobiagak (Bilbo, 1960). Ahoan bilorik gabe hitz egin digu eskola publikoaren eta hezkuntzaren erronken gainean.			
Talleres de Deusto S. A. (1918)			Irudiak berbetan	21
MODA Auzoan errotua, eta haratago		 harkua bete herba		24
KULTURA Kremlineko gau giroa indarberrituta itzuli da				
PINTXODROMOA Olagarroa - Akeita Gozo				
KULTUR TXOTX Hodei Torres eta Julene Iturbe Epelde				

Prest!

Argitaratzailea:

BLB Komunikazioa Koop. Elk.

Tel: 94 447 10 42

Ramon y Cajal 42

Deustu 48014

bilbokoaldizkariak@gmail.com

Zuzendaria: Jone Gartzia Gerra

Erredakzioa: Nerea Olaziregi, Gaizka Suarez, Laura Freijo, Hekori Ortega, Nerea Cubillo, Borja Sarriñandia-Ibarra, Andoni Lopez, Aitor Sarriñandia-Ibarra, Patxi Gaztelumendi, Olatz Arregi, Ane Rotaetxe, Iker Basabe, Maider Zalbidea, Hodei Torres, Maddi Argote, Ane Zabala, Lur Mallea, Txema Luzuriaga, Jon Intxaurreaga

Kolaboratzaileak: Elorri Bertso-Eskola, Deustuko Eskola, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazioko eskola, Arangoitiko Eskola, Deustuko Gazte Lokala, Deustuko Jai Batzordea, Errondoko Auzo Etxea, San Inazio Jai Batzordea, Bilbotik Perura

Argazkiak: Ecuador Etxea

Publizitatea: Jone Gartzia Gerra


Diseinua: BOST

Maketazioa: Laura Freijo Iglesia

Inprimategia: Antza

Ale kopurua: 2.800

Lege Gordailua: BI-571-01



Angel Prieto Fidalgo
Ikerlaria

Bilboko auzoak eta hirigunea

Gaur ere, ez nator bat berriekin. Bilboko beste auzoekin konparatuta, hirigunean egiten diren mantentze eta garbiketa lanen artean alde handia dagoela argi dago. Horretaz jabetzeko Bilbotik ibiltzea besterik ez da behar. Hiriguneko oinezko pasabide guztien espaloiak beheratuta (errepidearen mailan) daudela ikusiko genuke. Aitzitik, auzo asko oraindik beheratuta ez dituztela konturatuko ginatke. Hau da, mugitzeko zailtasunak badituzu, hobe hirigunean bizitzea.

Garbikuntza zerbitzuekin antzerakoa gertatzen ohi da. Adibidez, auzo askotan kale-zurrit baten botilak egunetan

zehar lurrean botata geratzea ohikoa da leku batzuetan (adibidez, Arangoitiko parkean). Hirigunean, ordea, garbitzaile talde bat tokiz aldatzen da espresuki zikinkeria hori azkar txukun gera dadin.

Udal agintariak auzo txikiko parke bat botilaz beterik dagoenean konturatzen ez direla dirudi. Ezta baranda bat hausten denean ere. Auzokideok horretaz berri emango ez bagenu, horrelako gertakariak askoz beranduago garbituko edo konponduko lituzkete. Horretaz kokoteraino gaude auzo elkarteetako kideok. Auzo guztiek arreta berdina izan beharko lukete!



Atxarte Salvador Navarro
Hego-haizearen zurrumbilaoan

Txipiroiaren jokoa

Ziur aipatu telesailari buruz zeozer entzun duzuela dagoeneko. Ez dizuet espolierrik egingo, ikus ezazue; baina aipa daiteke kapitalismoak dena kendu eta zorrez bete dituen ehunka lagun bizitza jokatzeko prest daudela, txiripaz bizirik ateraz gero, diru mordoia irabazteko aukera eskaintzen dien jokoa.

Esan dezakegu euren ekimenez eta erabakiz doazela jokoa parte hartzera, inork indarrez eraman gabe. Esan dezakegu onartu egiten dutela jasango duten beldurra, mina eta heriotza bera. Baiezkoa eman dute, onartu egin dute, ados daude. Bizirik ateraz gero, diru mordoia irabaziko dute. Ez daukate ezer, den dena galdu dute eta, ez dirua bakarrik.

Jakin badakigu oro har baietz esateko arrazoiak asko izan daitezkeela, esaterako, zeri esaten ari garen zehazki ez jakitea, beldurra, mehatxua, etsipena, edota ezetz esateko aukerarik ez izatea. Zintzoki, ez dut uste sistema kapitalista-patriarkal basati honetan gure hautuak benetan libreak izan daitezkeenik. Baina, demagun kasuren batean horrela dela, orduan, edozer

gauza onargarri eta zilegi bihur daiteke norberak onartuz gero?

Poliki hausnartuta, ezezko biribila erantzungo genuke, inork ezin baitie giza eskubideei uko egin, ez besterenganatu, ezta salerosi ere. Bestela, ezingo genuke lege debekatu hala erabakitzen duen langileak doan lan egitea, edo nork bere organoak saltzea, begi bat opari egitea edo apustueta bizitza bera jokatzeko. Erailketa bera onartu beharko genuke, norbait, diru truke ala doan, egurra jasotzeko edo hiltzeko prest aurkituz gero.

Baina benetan ez al gaude salbuespen asko eta asko normalizatzeko prest? Ez al gaude sinetsita dagoeneko edozer salerosi daitekeela? Ez al dugu norbanakoaren borondatea ia sakratutzat hartzen? Esan dezakegu gehiegitan baliozkotzat ematen ditugula honelako argudioak: “Berak nahi badu, ondo da”, “ez dio inori kalte egiten”, “librea da bere gorputzarekin nahi duena egiteko”. Esan dezakegu, beraz, neoliberalismoak eta patriarkatuak primeran bete dutela euren zeregina.





Maite Sarasola Isazelaia

Jatorria: Deustu

Bizitokia: Limerick (Irlanda)

Ikasketak: Euskal Filologia ikasten



“Inoiz, triste egon naizenean, pentsatu dut ez nukeela euskararekin halakorik gertatzerik nahi”

Irailean joan zen Maite Sarasola Isazelaia Irlanda mendebaldeko Limerick herrira, Unibertsitateko truke programa baten baitan. Hamar hilabeteko egonaldia egingo du, eta lehen biak zelan igaro dituen kontatu digu.

Nolako herria da Limerick?

Dublinetik 200 kilometrora dago, Munster eskualdean. Txikia eta euritsua den arren, badu bere xarma, ikasle ugari bizi dira bertan eta beti dago zer egin eta nora joan. Gainera, pub irlandarrez lepo daude bertako kaleak, eta ederra da edozein egunetan zuzeneko musika entzun ahal izatea zerbeza bat eskuan duzularik.

Zer egiten duzu bertan?

Ez daukat astirik aspertzeko, unibertsitateak askotariko ekintzak eskaintzen ditu eskola orduetatik kanpo. Nik saskibaloi taldea, igeriketa klaseak eta talde feminista aukeratu ditut, beraz, egunero edukitzen dut zer egin eta zer ikasi! Horrez gain, herrialdea ezagutzeko aukera ere izan dut eta ora-indik ere horretan ari naiz, baita bertako parrandez eta gau giroez gozatzeko aukera ere!

Zerk harritu zintuen hasieran?

Jatorduekin oso desberdinak gara. Aurretik prestatutako jana-ria jaten dute batez ere, mikrohuin-labean sartu, berotu eta erosi duzun bezala, ahora! Horrez gain, Euskal Herriarekin alderatu-

ta, dena askoz ere garestiagoa da: zerbeza batek 5€, txupito batek 5.50€, menu batek 18€, hirian zehar garraio publikoan ibiltzeak gutxienez 1,50€... Eta horrela, diru-zorroan geratzen zaizun azkenengo zentimoa desagertzen zaizun arte...

Zelan moldatzen zara hizkuntzarekin?

Ingelesez komunikatzen naiz. Irlandan ingeles irlandarrez (eta gutxi batzuek gaeleraz) hitz egiten dutela esaten dute, eta izugarrikoa dela Erresuma Batuak, AEB eta Irlandaren artean dagoen aldea. Hots, hitz, esaera eta adierazpen irlandar ugari dituzte eta 100 aldiz gauza bera entzun arte zaila egiten zitzaidan esaten zutena ulertzea. Baina, uste nuena baino hobeto moldatzen ari naiz hizkuntzarekin, eta ahal bezala elkar ulertzea lortzen dugu.

Nolakoa da gaeleraren egoera?

Irlandan orokorrean biztanleriaren %43k hizkuntza ezagutzen duen arren, %5ek baino ez du erabiltzen. Izugarri tristatu nau hizkuntzaren egoera nola dagoen ikustek. Eskoletan eta institutuetan

ikasten dute eta kaleko argibide guztiak ere, bi hizkuntzatan jarri-ta daude. Hala ere, ez da “norma-la” gaelikeraz hitz egiten duten gazteak aurkitzea, nik ez dut bat bera ere ezagutu. Haien zaharrek bazekitela eta horrelakoak esan dizkidate, baina gazteek ez dute hitz egiten. Oso bereganatua dute Irlandako kultura, harro daude, kanpotarroi erakusten digute; os-tera, hizkuntzarekiko ez dute kontzientziarik erakusten. Niri pena handia ematen dit. Inoiz, triste egon naizenean, pentsatu dut ez nukeela euskararekin halakorik gertatzerik nahi.

Gaelera ikasteko aukerarik izan duzu?

Unibertsitatean ematen dute aukera, hala ere, zoritxarrez ez du arrakastarik izaten, jendeak ez du aukeratzen gaelikera ikastea. Nik, nire kabuz hiru laguni euskarazko eskolak ematen dizkiet eta haie-tariko batek gaelikera irakasten digu. Jada hainbat gauza ikasi di-tut: zerbeza bat eskatzeko, “lionn mas e do thoil e” esan behar duzu. Norbaiti maite duzula esa-teko, “Tha gràdh agam ort” esan behar diozu...



1910eko San Jose jaia.

KIOSKORIK EZ DEUSTURENTZAT

Zaila da imajinatzea Done Petri plaza kioskorik gabe. Argazkirik zaharrenek esaten digutenaren arabera, behintzat, 1890. urtean musikaren kioskoa ere altxatzen zen Deustuko udaletxearen eta herriko eskolen aurrean.

Testua: Nerea Cubillo Urkizu

Aipatu urtetik gaur egunera arte plazako kioskoak aldaketa asko jasan ditu: berriztatzeak, lekualdaketak... Alabaina, deustuarrok beti izan dugu auzoko mugimendua lau haizeetara zabaltzeko ikur berezi bat, eta, hurrengo irudietan ikusi ahalko duzuenez, kioskoa izan da.

2021eko abuztuaren 19an eraitsi zuten askoren ustez auzoko ikur esanguratsuen zena. Azken honek plazan denbora gutxi zerman arren, auzoko memoriaren zatitxo bat zutabeen artean zuen gordeta, nahita edota nahigabe bertan dantzatu, pankartak eskegi, kontzertuetaz gozatu, auzoko beharrak aldarrikatu eta jaietako pregoi ia guztiak bertatik egin ditugulako.

Jarraian, egitura txikia ondo baino hobeto eza-gutzen zuten zenbait eragileren oroitza jaso ditugu, omenaldi txiki bat egin guran.



1894.



2017. Berbaizu Euskara Elkarte.

Bihotz Alai dantza taldea

Bihotz Alaiko kideontzako zer izan da kioskoa? Musikarientzako ezinbestekoa askotan, hortik jo dutelako sonoritate hobe izateko. Dantzariontzako erreferentzia izan da beraz, bere inguruan dantzatu garelako askotan, batzuetan ere aldagela izan da eta, nola ez, gotorleku euria ari zuenean! Bertan taldeak argazki erakustaldiak antolatu ditu, liburuak saldu, ekintza kulturelei bukaera eman die bertatik hitzaldiak eskainita... Eta, bereziki, iraganeko Deustua (herria) eta gaur egungoa batzen zituen haria edo ikurra zen, deustuar bezala itzala eta babesa eman digu! Eta amaitzeko, plaza (benetako plaza) bat omen zenaren azken ikurra zela...



Bihotz Alairen ekitaldia kiosko atzean.



Olentzero eta Mari Domingi kiosko barruan.

Deustuko Gazte Lokala

Deustuko gaztetxea txiki geratu zaigunean, kioskoak oholza bat eskaini digu, proiektua 4 pareten artetik 4 haizetara zabaltzen jarraitzeko. Gaztetxeak ez baitira eraikin soil bat, mundua aldatzeko tresnak baizik.



Deustuko Gazte Lokaleko kideak.

Makarra Life Style taldea

Skaterrentzat San Pedroko kioskoa spot mitikoa zen. Patinatzen hasi aurretik ere ikusia genuen jendea sei eskailera horietan trikimailuak egiten, abiada gutxirekin eta lur baldarrarekin. Denok egin dugu salto eskailera mitiko horietan. Donepetri plazako lanak hasi zirenean, agur esan genion leku enblematikoari Jam sesio batekin. Hiriko eta inguruko jendea bildu ginen eta kanpoko jendea ere etorri zen azken trikimailuak egitera. Deustuko skate pista bota egin zuten, eta ezin izan genion ganoraz agur esan. Garai txarrean, baina gogoz, agur xume bat egin genion. 60-90 lagun elkartu ginen lekuaz eta konpainia onaz gozatzera.



Makarra Life Style taldeko skatera kioskotik salto egiten.



Sareko astelehenetako kontzentrazioa.

Sare

Astelehenero Euskal preso eta iheslariak etxeratzeko kontzentrazioak plaza eta kioskoaren inguruan egiteaz gain, kioskoa bera ere gure aldarrikapenen bozgorailu bihurtu da askotan. Sistematikoki bertako zutabeak kanpainak eta mobilizazioak iragartzeko erabili izan ditugu eta manifestazio asko bertatik abiatu eta amaitu egin dira.

Berbaizu Euskara Elkarte

Berbaizuren 20 urteko ibilbidean zehar leku fisiko erreferentea izan da kioskoa, auzoko ikurrik esanguratsuena delako gure ustez. Euskararen alde antolatutako ekintza eta manifestazio guztiak honen inguruan burutu ditugu: Kutxa Bira, Euskaraldia, Euskararen eguna...



Berbaizu Euskara Elkartearen 11 Egun Euskaraz dinamika.



Elorri bertso eskola

Kioskoak garrantzi berezia izan du Eloorriren hazkunderako. Kioskoa aproposa izan da omenaldi, ospakizun eta ekintza kulturalak egiteko. Bertan, pila bat bertso abestu ditugu, lotsa galtzen lagundu digutenak. Horrez gain, kioskoak Deusturi izaera edo xarma berezia eman dio eta behin Deustuk bere izaera berezi hori izanda, Elorrik izena lortzea errazagoa da. Elorri entzuten duenak, jarraian Deusturekin lotzen du. Azkenik, duela urte batzuk Elorri Deustuko Jaietako pregoilaria izan zen, une horrek balio handia izan zuen hasiberria zen bertso eskolarentzako eta zirrara hori zuzenean lotzen dugu kioskoarekin.



Bilboko Gazte Sare Feminista PARE Deustuko gazte talde feministarekin.



Deustuko Gazte Lokalaren ekintza.

Deustuko Jai Batzordea

Ez da kasualitatea jaietako pregoia, inauterietako desfile nagusiaren sari banaketa eta udako zein neguko solstizioak, besteak beste, Done Petri plazako kioskoaren inguruan antolatu izana. Deustuko Jai Batzordea osatzen dugun konpartsok eta taldeok oso ondo dakigu kioskoak gure auzoan historikoki duen garrantzia eta gu ere ikur hori mantentzen saiatu gara.



Deustuko Inauteriak.

Grebalariak Aske!

2012ko martxoaren 29ko greba orokorrean pintaketak egiteagatik bi urte eta erdiko kartzela zigorra ezarri zieten Urtzi Martinez eta Jon Telletxea deustuarrei. Astebete ezkutatuta egon eta gero, urriaren 11n Done Petri plazan agertu eta kiosko gainera igo ziren hainbat lagunek inguratuta. Bertan atxilotu zituen Ertzaintzak.



Grebalariak Aske!



LIBURUTEGIRIK GABE GERATUKO DA ARANGOITIKO ESKOLA?

Hogeita hiru urte pasatu ondoren Arangoiti eskolako liburuzaina jubilatuko da eta legeak ezartzen duen bezala, liburutegiko proiektua ere bukatuko da. Egoera hau beste eskoletan ere errepikatu da azken urteetan eta egun oso proiektu gutxi daude bizirik. Idatzi honek eskoletako liburutegien garrantzia adierazteko asmo argia du, dagokionak neurtu dezan ea hiltzen uztea merezi duen ala ez.

Testua eta argazkiak: Arangoitiko eskola

Arangoitiko eskolak ACEX (Eskolaz kanpoko ekintzak) programan parte hartu du 1998 urtetik. Geroztik, irakasle bat egon da liburutegia antolatzen eta proiektu pedagogikoa garatzen, liburutegia toki hezitzailea izan dadin.


Horrela, liburutegiko arduradunak liburu berriak erosi, katalogatu eta horien berri ematen dio komunitateari, gero doako maillegu zerbitzua eskaintzeko.

Aldi berean, hainbat ekintza hezitzaile garatzen ditu, ikasle guztiei zuzenduta eta irakurtzeko zaletasuna bultzatzearen helburuarekin, ikasleek liburuaz goza dezaten.



Baina, zer eskaintzen du eskolako liburutegiak bereziki? Zeintzuk dira bere helburuak eta betebeharrak?

Hasteko, irakurketa bultzatzea da helburu nagusia. Horretarako, eskolako liburutegitik zenbait ekintza ludiko antolatzen dira (ipuinak kontatu, aditu, irakurri edo asmatu, poesiak landu, antzerkiak, hizketaldiak, informazioa bilatu...). Idazketa eta ahozkoa ere lantzen dira. Horrela, ikasleek aukera daukate irakurritako liburuaren gomendioak egin, istorio zoroak edo poesiak asmatu eta idatzi, antzerkiak egin, aho-korapiloak ikasi, asmakizunak asmatu... Familien partaidetza eskatzen zaie maleta ibiltariaren proiektuarekin etxean irakurzaletasuna bultzatzeko. Urtean birritan, Gabonetan eta





udako oporren aurretik, liburu gomendagarrien triptikoa bidaltzen zaie familiei.

Horrez gain, liburuzainak liburutegia hornitu eta antolatu egiten du. Hau da, liburu berriak erosi eta katalogatu, apalategietan sailkatu eta ordenatu, eskolak erosten dituen liburuak katalogatu... Gure eskolan liburu bilduma oso zabala da, 7.000 ale inguru ditu eta era askotako liburuak daude: ipuinak, komikiak, poesia, helduentzako nobelak, gaia askotako kontsultarako liburuak, aldizkari batzuk, hiztegiak... Katalogoa eskolako *site*-an kontsultatu daiteke. Arduradunak ere mailegu sistema bideratzen du eta auzoko

komunitate osoari liburuak maileguan hartzeko aukera ematen dio.

Liburutegiko arduradunak ere irakasleei liburu gomendioak egiten dizkie, eta haien eskakizunak kontuan hartzen ditu nobedadeak erosteko.

Beste aldetik, liburutegiak eskolan antolatzen diren ospakizunetan ere hartzen du parte, bereziki liburuaren astean. Egun horietan liburuzainak familiak gonbidatzen ditu ikasleei ipuinak kontatzera, edo gurasoekin hizketaldiak bideratzen ditu.

Amaitzeko, arratsaldeetan, klaseak amaitzen direnean, liburutegiak leku lasaia eskaintzen dio eskola osoari. Ikasleek haien gustuko liburuak patxadaz irakur ditzakete, Interneten kontsultak egin edo etxerako lanak egin irakasle batek lagunduta.

Eskola-liburutegiak desagertzeaz daude, hurrengoa Arangoitikoa izango da, baina, nahiz eta haien ekarpena xumea izan ikasleen heziketan, liburutegiak mantentzeko ahaleginak ezinbestekoak dira nire ustez. Eta zuek, zelan baloratzen duzue?





DEUSTUAR KORTSARIOAK XVIII. MENDEAN (ETA II): GRAN CARLOS FRAGATA

Deustuarrek kortsario ibili ziren XVIII. mendean zehar. Aurreko zenbakian 1743ko ontzi bat hartu genuen hizpide eta onaingoan 1762ko beste bat aitatuko dugu: Gran Carlos fragata. Kapitaina, Geronimo Puch deustuarra.

Testua: Hektor Ortega



Venus fragata 1793an, La Semillante ontziaren aurkako borrokan.

Beste deustuar bat aiatatu behar dugu atal honetan. Egiari zor, beste baten ere agertu izan zaigu zokondo honetan (ikus PREST! 143). Geronimo Puch (alegia, Puig) izatez kataluniarra zen, Tossa de Marrekoa, baina Deustura ezkondu zen, Maria Iruletarekin. Eta 1762an Gran Carlos fragata kortsarioaren kapitain gisa nabigatu zuen. Zazpi Urteko Gerran (1756-1763) Frantzia eta Ingalaterra nor baino nor gehiago jardun ziren, munduko hegemonia helburu. Azken orduan, Espainiako errege Karlos III.a Frantziaren alde sartu zen guda hartan. Erabaki horren ondorioz, ingelesen aurka kortsario aritzeko patenteak banatu zituen, horietako batzuk Bizkaiko eta Gipuzkoako ontzientzat (15 ontzi Donostian eta 9 Bilbon, Enrique Oteroren datuen arabera). Jakina, Baionako kortsarioek lehenagotik jarduten zuten ingelesen interesen aurka.

Kontua da Espainiako monarkia gerran sartu zenerako, guda ia amaituta zegoela. Bizkaiko eta Gipuzkoako ontzi kortsarioak 1762ko otsailean hasi ziren lanean eta urte hartako abenduan hasi ziren bake itunak egiteko negoziazioak. Hain justu, azken egun haietan itsasoratu zen Geronimo Puch, Gran Carlos ontzi kortsarioaren buru.

Bere seme-alaben noblezia frogatzeko agirietan kanpaina honen berri eman zuten. Fragata Zorroztako ontzioletan egin zuten 1762an bertan, 32 kanoi zeramatzan eta eskifaian 252 gizon zeuden. Egundoko gerraontzia atondu zuten. Eta etekina atera bide zioten: “En solo treinta y dos días de guerra haviendose hecho al mar después que se firmaron los preliminares de Paz hizo siete presas”. Hogeita hamabi egunetako kanpainen zazpi ehizaki harrapatu zituen, egin kontu. Josep

Fábregas historialariaren artikulua batean aurkitu ditugu ehizatu zituen sei ontziren izenak: Lisbett, Le Porte, Elisabet, Lepperd, Lecey eta Thomas. Horiek zuzenak badira, zazpigarrena geroago aitatuko dugun Carolina izan zen.

Venusetik ihesi

Gehiago ere egin zuen. Venus ingeles fragata atzetik eduki zuen, baina ihes egitea lortu zuen Puchek, baita Bilbora osorik iristea ere: "Acreditó su capacidad e inteligencia en las vellas maniobras que hizo para libertarse de ser apresado por la fragata nombrada la Venus del Rey Británico que le dió caza en muchas horas, y bolbió a este puerto con la expresada fragata aplaudido de todos por su valor y especial ynteligencia en el manejo de las embarcaciones".

Segurutik Venus hura 1758an eraikitako HMS Venus fragata zen, 36 kanoiduna. Gerra honetan gutxienez gerraontzi frantses bi ehizatu zituen. 1793an Le Semillante frantses fragataren aurka borrokatu zen Finisterre aldean. 1809. urtera arte iraun zuen ingeles itsas-armadan.

Itsasgizon trebea eta ausarta omen zen Puch, baina gerra goizegi amaitu zitzaion. Bere ehizakietako bat, Filadelfiatik Londresera joian Carolina merkantzia-ontzia, alferrikakoa izan zen, harrapatu orduko bake itunerako negoziazioak hasita zeudelako. Ontzia bere jabeei itzuli behar izan zieten. Gainerakoak, oster, legezkoak izan bide ziren. Lisbett ingeles bergantina, adibidez, enkantean saldu zuten. Aurrekoan zehaztu genuen bezala, kortsoan jarduten zuten ontziek auzitegiaren aurrean legezatu behar zituzten euren ehizakiak, erakutsiz gerra garaian egindakoak zirela eta ontzi haiek nazio etsaien zerbitzuan zebiltzala.

Bazkide elkarte

Gainerako ontzi kortsarioekin gertatu ohi zen legez, Gran Carlos fragataren atzean elkarte kapitalista bat zegoen. Bazkideen artean ziren armadoreak, ontzigileak eta ontzian inbertsioa egindakoak. Horietako bat gure ezaguna da, aurreko atalean agertu zitzaigulako. Izan ere, 1743an itsasoratu zen Nuestra Señora de la Piedad ontziko elkarteko bazkideen artean ageri zen Nicolas Iribarren. Ia hogeitau urte geroago, beste ontzi kortsario baten bazkide kapitalista gisa ageri zaigu. Nicolas Iribarren Begoñan jaio zen, baina aita eta ama lapurtarrak ziren. Gurasoak Donibane Lohizunetik Begoñara etorri ziren eta aita Uribarrin harakin ibili zen. Seme Nicolasek ere harakintzari lotutako negozioetan murgildu zen (Bilboko okela-horniduraren ardura hartu zuen urte batzuetan) baina ontzigintzan eta merkataritzan ere jardun zuen. Ontzi kortsarioen armadore eta zuzendari gisa lan handia egin zuela ematen du, aukera izan zuenean behinik behin. Gran Carlosek etekin politikak utzi zitziola pentsa dezakegu. Ontzi kortsarioak arrisku handiko enpresa emankorrak izan ziren bazkide kapitalistentzat.

Gerra berehala amaitu zen, hasieran esan legez. Zer gertatu zen Gran Carlos fragata ahaltsuarekin? Antza denez, merkataritzan jardun zuen. 1763ko abuztuan Jeronimo Puchek idatziz aitortu zuenez, Gran Carlos Olabeagako ainguralekuan zegoen, noiz itsasoratuko begira. Hirurehun tonako ontzia zen eta 44 laguneko eskifaia zeukan, denak Bizkaiko portuetako bizilagunak. Ugazaba Luis des Essart Bilboko merkataria zen, ontzi kortsarioan ere bazkide izandakoa. Hurrengo portua ere jakinarazi zuen: Nantes. Abante!



Kalderapeko
euskal kultur gunea

www.kalderapeko.com
txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99

BERBAIZUREN 2019KO BALIO SOZIALAREN MONETIZAZIOA

Jakina den moduan, unibertsitateko gradua bukatzeko azken pausua Gradu Amaierako Lana izaten da, eta lan honetarako interesgarria iruditu zitzaidan Berbaizu ekonomia sozialarekin uztartzea. Horrela, Berbaizuren 2019ko Balio Soziala monetizatzea erabaki nuen.

Testua eta irudiak: Ander Anakabe Lekue


Azken urteotan ekonomia sozialaren berri izan dugu esparru desberdinetan baina hori gure lanbide edo elkarteetara eramatea zaila da askotan. Horregatik, Berbaizuk 2019an izandako Balio Sozialaren kuantifikazio eta monetizazioa azaltzera gatz artikulu honetan.

Elkarte baten Balio Soziala elkarteak gizarteari sorrarazten dion balio osoa da, ez soilik ekonomikoa. Kalkulu hau egiteko Berbaizu, Prest! eta Txantxiku hartu ziren kontuan, baina Berbaizuren inguruan beste proiektu batzuk daude Elorri edo Uriola izan daitezten moduan. Balio Sozialaren kalkulurako, kontabilitate tradizionaletik salto bat eman genuen, erdigunean Berbaizuren interes-taldeak jarritz. Egia da kontabilitate tradizionalak muga asko dituela eta behar bat sortu dela, erakunde batek bere jardueraren bidez egindako ekarpenen informazioa zehazteko. Interes-taldea motz azaltzeko, elkarte baten zuzenean edo zeharka eragina izan dezakeen taldea da, eta alderantziz, elkarteak eragin dezakeen edozein talde. Lehenengo irudian ikus ditzakegu zeintzuk diren Berbaizuren interes-taldeak.

Balio Sozialaren kuantifikaziorako interes-talde gehienekin elkarrizketak egin ziren, elkarteak talde bakoitzari sorrarazten dion balioa identifikatuz eta monetizatzeke era desberdinak proposatuz, balio hori diruzkoa izan daiteke edo ez. Interes-talde desberdinetan errepikatu ziren balioak behin bakarrik hartu ziren kontuan.

Aipatutako balio hauek bi multzotan banatu genituen:

- Merkatuko balioak (soldatak, gizarte segurantzak, zergak, hornitzaileei egindako erosketak...).



- Ez merkatuko balio aldagaiak (Doan banatutako PREST!eko aleak, Muller lokalaren doako erabilera, txandak egitea...).

Berbaizuren Balio Sozialaren monetizazioa Leire San-Jose irakaslearen gidaritzapean (www.ehu.eus/ecri) eta GEAccounting (www.geaccounting.org) eta Jose Luis Retolazaren laguntzarekin burutu zen. Emaitzetan murgilduta, bigarren irudian ikusi daitekeen moduan Berbaizuk 2019an Barneratutako Balio Soziala 288.006 eurokoa izan zen. Gainera, Administrazioa bere jardueraren bidez 56.960 euro itzuli zituen, jasotako dirulaguntzen %87a. Kontuan hartu behar da Berbaizu irabazi asmorik gabeko elkarte dela eta ez duela merkataritza jarduerarik burutzen.

Azkenik, esan beharra dago 2019an sorrarazitako Balio Soziala lanean lortutako emaitza baino handiagoa dela. Honek bi arrazoi ditu. Alde batetik, Berbaizu proiektu gehiagok osatzen dute, eta bestetik, balio emozionala eta merkatukoak ez diren balio aldagai batzuk kuantifikatzeko eta interes-talde jakin batzuekin elkarrizketak burutzeko zailtasunak egon ziren.

ARRIAGA PLAZATIK GLASGOWRA OINEZ, KLIMAREN ALDEKO BORROKAN

Glasgown hastear den Klimaren Goi Bilerara (COP 26) oinez joan dira hainbat ekintzaile “larrialdi klimatikoaren aurrean ekitea aldarrikatzeko”. Bilbotik abiatu ziren iragan irailaren 28an, eta 29 etaparen ostean urriaren 30ean iristekoak dira Glasgowna. Ibiltarien artean da Deustun bizi den Luis Alejos Escarpe, soziologoa eta gizarte-langilea, Pyrenaica aldizkariarekin argitaratutako liburuengatik ezaguna. El Diario.es agerkariko ‘Viento del norte’ blogean jaso ditu martxaren kontakizunak.

Testua: PREST!

Argazkiak: marcha-a-glasgow.net

Urriaren 31n hasi eta 12ra bitarte luzatuko da Glasgown Klima aldaketari buruzko Nazio Batuen Konferentzia (COP 26). Klimaren aldeko borroka- ren garrantzia azpimarratzeko eta herritarren zein gobernuen ekintzak exijitzeko Britainia Handia zeharkatu du aktibista talde batek oinez. Ekime- na Zaragozan sortu zuten Ecologistas en Acción, Extinction Rebellion eta Klima Larrialdiaren aldeko Aliantza eragileek, eta askotariko ibiltariak parte hartu dute martxan.

Horien artean, Deustun bizi den Luis Alejos dago. Bere kroniketan irakurri dugu ibilaldia zelan igaro den eta zelan iritsi diren Glasgowna, 840 kilometro- tik gora egin ostean eta azken etapetan Britainia Handiko Extinction Rebellion taldeak antolatutako ‘Camino to COP26’ martxarekin bat eginda.

Ekimenaren bitartez klimaren aldeko borrokan murgilduta dauden herritarren “presentzia akti- boa” eraman nahi dute Nazio Batuen bilkurara. Adierazi dutenez, “aldaketak enpresa handien eta elite politikoen esku uzte ez da ideia ona”, hori sinetsarazi nahi diguten arren. Horregatik, martxa



9. eguna, Hinkleytik Leicesterrera.

tokian tokiko mobilizaziorako pizgarri izatea espero dute, eta, nolabait, horrela izan dela baieztatu daiteke. Gurutzatu dituzten herri guztietako eragile eta norbanakoen inplikazioa ezinbestekoa izan da ibiltariak jateko eta lotarako lekua izateko. Gaine- ra, martxan zehar talde lokal asko batu zaizkie euren aldarrikapenak kilometro batzuetan zehar zabaltzeko.

Eguraldia kontra izan dute askotan, trafiko ugariko errepideetan egin behar izan dituzte kilometro ugari, eta Covid-19aren aurkako neurriek zein egunean batez beste 30 kilometro inguru ibili be- har izateak markatu dute martxa berezi hau. Alta, horrek ez du antolatzaileen eta ibiltarien pausua lausotu, areagotu baino. Argi dute zertarako egin duten: “Glasgown jokoan dagoenaren tamaina handiari buruz gizartearen kontzientziatzeko lagun- garri izan daiteke ibilaldia. “Gaur egun, ez dago ezer garrantzizkoagorik klimaren aldeko borroka baino”, azpimarratu dute. Martxaren kronika osoak irakurri nahi dituenak, aukera du Luis Alejosek EIDiario.es-en duen blogean (Viento del norte) eta marcha-a-glasgow.net helbidean.



Martxaren aurkezpena.

b

berbetan

ITZIAR MUJIK A USOBIA GAREKIN

Irakasle erretiratu

“Deustuk eskola publiko

*Pandemia bete-betean
erretiratu zen 38 urtez
irakasle izan eta gero.
Azken 12 urteak Deustu
ikastetxean zuzendari
gisa eman ditu Itziar
Mujika Usobiagak
(Bilbo, 1960). Ahoan
bilorik gabe hitz egin
digu eskola publikoaren
eta hezkuntzaren
erronken gainean.*



bakarra izan behar du”

Urtebete daramazu jubilatuta. Zelan bizi zara?

Ondo. Gauzak egiteko gogotsu nago, mugimenduan jarraitzeko, beti ibili naizen moduan. Taldea, jendartea gustuko dut betidanik. Unibertsitatean eta gimnasioan izena ematekotan naiz, jende berria ezagutu, bidaiatu eta ingurura zabaltzeko.

Hezkuntzan, zerekin gozatu duzu gehien?

Ikasleekin harremanetan. Asko maite ditugu eta asko maite gaituzte. Hori ikaragarria da.

Eta zertan sufritu duzu?

Ahal duzun guztia eginda ere helburua lortzen ez duzunean. Adibidez, ikasleren batekin lanean jardun eta gurasoen aldetik laguntzarik jasotzen ez duzunean. Irakasleen lana ez da albiste onak ematea bakarrik, txarrak ere eman behar dira, eta albiste txar bat ematean gurasoek ez ulertzea... hori gogorra da guretzat. Izan ditut guraso batzuk une gogorretan egoera onartzeagatik zoriondu ditudanak.

Zuzendari gisa, itxialdia eta online klaseak kudeatzea egokitu zaizu. Zelako lana izan da?

Pentsaezina zen gertatutako guztia. Nahiko ondo kudeatu genuen hasiera batean, baina inork ez zuen uste hain luze joko zuenik. Gogorra izan da kontuan hartuta zein ikastetxe mota den gurea. Ikasle askok ez dute ordenagailurik etxean, ez Internetik, dirurik ez daukatelako. Batzuk bai, baina gehienek ez. Eskolako ordenagailuak mai-

leguan utzi genizkien eta Internet-pintxoak ere lortu genizkien. Banatu eta azalpenak eman. Laguntzak heldu zitzaizkigun, baina gero. Guk aurea hartu genuen. Irakasleak *chapeau* portatu ziren, nahiz eta kasu batzuetan arrisku gehiegi ere hartu zuten. Beldurtuta geunden denok, baina aurre egin behar izan genion beldurrari familiak atzean geneuzkalako.

Deustuko ikastetxea zentro berezia dela diozu. Zergatik da berezia?

Deustu auzoan dagoen biztanleria ez dago gure eskolan, ezta ikastolan ere. Ez batak ez besteak ez du islatzen auzoa. Ez da erreala hau, ezta ikastola ere. Gure eskolan jatorri desberdineko eta beharrian bereziko ikasle asko dauzkagu ikastolaren aldean. Gurasoek ere nahiago dute euren herrialdeetako jendearekin egotea seme-alabak. Hori euskaldunok ere egin izan dugu hor zehar joan izan garenean. Baina umeen hizkuntza eta beharrianak bideratzen ditugunean, normalean joan egiten dira prestigio gehiago duen zentro batera. Prestigio hori zergatik ez duen gure eskolak? Ez da jendearen lanagatik. Hemen egiten den lana demasa da. Irakatsi baino gehiago umeen premiak bideratzen ditugu. Ate guztiak jotzen ditugu umei laguntzeko. Logopedak, fisioterapeutak, irakasleak, aholkulariak... sekulakoa da gure lantaldea. Ez dago leku askotan horrelakorik.

“Albiste txar bat ematean gurasoek ez ulertzea... gogorra da”

▷ ▷ SAKONEAN

“Irakasleen eskutan ezin da dena utzi”

Hezkuntza legea berritu nahian ari dira talde politikoak. Zer aldatu beharko luke lege berriak?

Hizkuntza-ereduak duela hiru hamarkada baino gehiago sortu ziren, eta harrezkero bai irakaskuntza bai euskararekiko konpromisoa asko aldatu da. A eredu guztiz desagertu da. B itunpekoek gorde dute eta hasi da lehen A eredu zena bihurtzen. Eta beste dena D eredu da. Baina D eredu horretan ezin ditugu ikasle denak berdintzatu, euskara nahi dutenak eta nahi ez dutenak. Nire iritziz, lan asko egiten dugu nahi ez dutenak euskalduntzeko.

Erantzukizun gehiegi jartzen da eskolaren gain?

Entzuten ari naiz batzuei eskolak ezin duela dena egin, noski ezetz. Zenbat bider esan diegu gurasoei etxean marrazki bizidunak euskaraz ikusteko. Baina ez dute egiten. Irakasleen eskutan ezin da dena utzi. Bai, badakit, ez da kontu erraza.

Irakasle eta zuzendariei behar beste entzuten dizute?

Ez. Lehen lerroan gaudenoi entzutea eta jaramon egitea nahi nuke. Entzun, entzuten digute, baina jaramonik ez digute egiten. Eta uneren batean zeresana sortuko duen erabakiren bat hartu beharko da. Argi izanez gero hori dela egin behar dena, bada... aurrera, nahiz eta bidean batzuk galdu.



Noiztik da horrela?

Hau ez da oraingo kontua. Ikastola publiko egin zenean, ordurako, hemen B eredu zegoen eta gerora erabaki zen D eredu ezartzea. Garai batean Deustuko jendea etortzen zen gure eskolara. Guxinaka desagertu ziren familiak. “Pozik gaude zuekin, baina gure seme-alabek bertako lagunak izatea nahi dugu”, esaten ziguten. “Ez dugu gure umeak eskolan kanpotar sentitzea nahi”.

Ikastetxea *ghetto* bihurtu dela esatea gogorregia al da?

Ez, ez da. Argi dago *ghetto* bihurtu dutela. Hau eta beste eskola asko *ghetto* bihurtu dituzte. Baina ikasleek ez dute egoeraren errua, ikasleek ez dute aurreiritzirik, aurreiritziak etxean daude.

Zer nolako familiak dauzkazue?

Era askotakoak. Ama bakarrena eta hegoamerikarrena da profil handi bat. Emakumeak askotan bakarrik datoz, ama bakarrek ere asko, eta jende horrek premia asko ditu. Umeak edozein momentutan datoz, eta sekulako gerria behar da euren premiei erantzuteko. Guk lantalde bikaina dugu horretarako. Espainiatik eta atzeritik datozen umeak dira, hizkuntzarik eta idazmenik ez dutenak asko. Gainera, umea gaixotzen zaienean, ezin dute etxean geratu umea



zaintzen. Lanera joan behar dute umeari Apiretala emanda. Zelan egingo diot gogor andre horri? Lagundu egin behar zaio.

Kulturantzitasunean gogor lanean jardun duzue. Zertan asmatu duzue?

Ikasiz joan gara. Milaka hitzaldi antolatu ditugu gurasoentzat, esaterako, etxerako lanak euskaraz seme-alabekin egiten laguntzeko. Baina, alperrik, ez zetorren inor. Maiatzean, ordea, Kulturartekotasun Egunera denak pozik zetozen. Nork bere herriko elikagai eta arropak ekartzen ditu, eta guk eskolan ekintzaren bat asmatzen dugu, jolasak, kantak edota munduko ipuinak di-rela. Eurek eta euren herria kontuan hartzeak - denok maite baitugu gurea- eta horri balioa emateak harro eta pozik sentiarazten ditu.

Kulturantzitasuna aberastasun iturri. Lortu duzue egoerari buelta ematea?

Horretan ari gara. Guk aberastasun gisa ikusten dugu, baina auzoan ez gaituzte ikusten. Matrikulazioan islatzen da hori. Aurten ere, matrikulazioa eskas. Behin, jarraipena egin genien bi talderi. Bi urteko gelako 18na ikasle ziren, guztira 36 ume. Kopuru horretatik hiru ikasle baino ez ziren geratzen 6. mailan. Ikasle askok alde egiten dute. Itunpeko ikastetxeetara joaten dira euren familiaren egoera hobetzen denean.

San Ignazio, Miribillan, Abusun... beste ikastetxe batzuk ere antzeko egoeran daude.

Bai, horrela da. Hitzez, denok gaude inklusibitatearen alde han eta hemen. Baina gauza bat esaten dugu eta beste bat egiten dugu, bizitzako beste arlo askotan bezala. Eta umeek etxekoa jasotzen dute, ez etorkinen kontra daudela, baina bai ez dutela ume etorkinekin gelan egon nahi. Eta umeak esponjak dira, eta mezu hori jasotzen dute etxean.

Zein da Administrazioaren erantzukizuna?

Talde politiko bakar bat ere ez da arazoari aurre egitera ausartu, inor ez da ausartu, nork berea babestu nahi duelako. EAJ, EA eta PSE eduki ditugu Hezkuntza Sailean...

denak inklusibitatean sinesten dutela esanez etorri izan dira eskolara. Baina nik ekintzetan sinesten dut. Uneren baten arriskatu beharra dago, eta baliteke jende asko haserretzea, baina arazoari heldu beharra dago. Deustuko ikastolaren eta eskolaren arteko fusioa egiten ahalegindu zirenean, 2.000. urte inguruan, guraso batzuk haserretu ziren. Ia dena prest zegoen. Kristoren zalaparta sortu zen, eta, azkenean, atzera egin zuten. Duela hiru ikasturte ere batuko ginela ematen zuen, ikasleak non sartu begira ibili ginen, pentsa. Baina orduan ere ez zuten bat-egitea onartu.

Deustu ikastetxea eta Deustuko ikastolaren bat-egiteak berdinduko lituzke bi zentroen errealitateak?

Noski, biak bat izango liratekeelako. Deustuk eskola publiko bakarra izan behar du. Ez dago arrazoirik bi izateko. Eta hemen bezala beste auzo guztietan ere. Publikoa nahi dugunok horretara joko dugu eta kito.

Noiz gertatuko da hori?

Ametsetan nabilela esaten didate sarri, baina urte biko kontua dela uste dut. Bat-egitea egingo dela, batu egin behar garela.

Zer mezu zabaldu nahi duzu deustuarren artean?

Iraskale talde bikaina dugula eta metodologia aurrerakoiak. Haur Hezkuntzan, esate baterako, Bizkaian oso eskola gutxitan dagoen metodologia darabilgu. Denean ari gara aurrera egiteko. Irakasleen lanerako gogo txapela kentzeko modukoa da. Oso pozik daude ikastetxean lanean. Nahiz eta beste zentro batzuetara joateko aukera edukiko, ez doaz. Umeak bai, joaten dira. Hor egin behar dugu zer edo zer.

Eskola publikoaren defendatzaile sutsua zara.

Ikasketak ikastolan amaitu nituenean argi nuen eskola publikora joan nahi nuela. Julita Berrojalbiz ikastolako zuzendariak esan zidan, "orain eskola publikora joan behar duzue euskara zabaltzera, hor zabaldu behar dugu euskara". Eta militantzia maila horrekin sartu ginen.

"Ez dago arrazoirik bi eskola publiko izateko"

Fano espetxean berriz eta Beobide Basaurira

Bigarren gradura itzularazi dute Unai Fano San Inazioko presoak. 2021eko urtarrilean atera zen kalera, Basauriko espetxean 3. graduaren sailkatu ondoren. Hasiera batean egunero itzuli behar zen espetxera lotara, baina ekainaren 6ak Espetxeetako Idazkaritza Nagusiak gaua espetxean igarotzetik salbuesteko ebazpen berri bat eman zuen, kontrol telematikoa ezarri. Irailaren 28an, ordea, Espainiako Auzitegi Nazionalako Lehen Sekzioak onartu zuen fiskaltzak erabaki horren aurka jarritako helegitea, eta bigarren gradura itzuli zuten. Ondorioz, espetxean da berriz ere. Gainera, Covid-19aren harrira jarritako neurrien ondorioz isolamenduan izan zuten berrogeialdia betetzen. Horrez gain, Ibai Beobide Arza Basauriko kartzelara mugitu zuten irailaren 29an. Urtarriletik Burgosen zegoen kondena betetzen, eta aurretik Andaluziako Puerto III presondegian izan zuten atxiki.



AUTOGESTIOA

Hiru hamarkada ospatzen

Gogoz ospatu dute deustuarrek Gazte Lokalaren hogeita hamargarren urteurrena. Urriaren 13an hasi eta 24ra bitarte denetarikoko ekintzak antolatu dituzte merkatu zaharrean zein bertatik kanpo: bertso saioak, musika emanaldiak, tailerrak, antzerkiak, argazki erakusketak, memoria historikoaren ibilbidea, bizikleta martxa, manifestazioa, bazkaria, elektrotxaranga... “Bizirik dago gazte-txea, bizirik autogestioa eta bizirik gazte antolatuen sugarra. 30 urte izan dira aurren, eta jarrai dezala okupazioaren defentsaren sokak”, goraipatu zuten antolatzaileek iraileko PREST! aldizkarian. Gogora ekarri behar dugu, gainera, ekainaren 21ean – okupazioaren urteurren egunean – Deustuko kioskoan ekitaldi xumea egin zutela Gazte Lokaleko kideek. Hori izan zen kioskoan egindako azken ekitaldi publikoa, abuztuaren 19an eraitsi baitzuten.



IBARREKOLANDA

Elkarlanerako foro irekia


Urriaren 23an Open Space Ibarrekolanda dinamikaren lehen saioa egin zuten jendaurrean. Aldaika Hezkuntza elkartearen ekimenez abiatutako proiektua da Open Space Ibarrekolanda, eta helburua Ibarrekolandako osasuna eta bizi-kalitate komunitarioa hobetzeko proposamenak biltzea eta martxan jartzea da. Ibarrekolandako hainbat elkarte eta gizarte eragilek hartu dute parte martxotik honako prestakuntza lanean. Urriaren 23an Ibarrekolanda plazan elkartutakoek Open Space metodologia erabili zuten proposamenak bildu eta agenda bat osatzeko. Antolatzaileen esanetan, gune irekiak Ibarrekolanda “auzo plural eta aktibo” gisa ulertzeko balioko du, “betiere, gure auzoan bizi garen eta harremanak ditugun guztion ongizatea helburutzat edukiz”. Informazio gehiagorako ikus <https://ibarekrolanda.es/>.



BERBAIZU

Hamarkadako plana

Berbaizu Euskara Elkartek hamarkadako epe motz eta ertaineko erronkei aurre egiteko hamarkadako plana aurkeztu du. Urriaren 6an Bidarte Udaltegian egindako ekitaldian azaldu zuten bazkideen aurrean datozen hamar urteotan zein urrats emango dituzten Bilboaldeko egoera soziolinguistikoa iraultzeko. Xede nagusia euskarazko jarduera eta gune gehiago garatzea izango dela azaldu zuten, eta horretarako hiru eragin esparru berri landuko dituztela: kirola, kultura eta gazteak, eta kalea. Horiei lehendik jorratzen zituzten esparruak gehitu behar zaizkie: hezkuntza, aisialdia eta komunikazioa. Elkarteko ordezkariak euskaraz hitz egiteko aukera gehiago sortzearen garrantzia azpimarratu zuten, eta deustualdeko gazteei, instituzioei eta gizarteari hots egin zieten zuzenean. Ekitaldian bertan 2021eko Errekaurti saria eman zieten SGEL liburu-dendako langileei eta bazkideen argazkia egin zuten.


Tomas Arizak lagatako argazkia.
Urtea: 1918

Txema Luzuriaga

Talleres de Deusto S. A.

Deustun ia XX. mende osoan egondako industria handia eta astuna zen gehienbat. Gaur egun, ordea, merkataritza eta industria txikia dira nagusi. Irudi honetan Talleres de Deusto S. A. lantegia ikus dezakegu. Bertan, altzairu moldekatua galdatzen zuten, forjaketa egiten zuten eta industria lanak egiten zituzten. Botikazar Erriberan zegoen, Ricardo S. Rochelt S. A. enpresa bezalaxe. Hau, 1858an sortu zen eta askotariko estanzazioak egiten zituzten bertan: metaletan, ontzietan, *corona* izeneko tapoietan, bidoietan... Eremu metal-grafikoko enpresa garrantzitsua izan zen, ontzi metalikoen fabrikazioan espezializatua, eta langile askori eman zien lana, bereziki emakumeei. *Corona* izeneko patentea zuen ontzien tapoientzako.

Segi Deustualdean euskara sustatzen. Eskerrik asko denoi!

Iragar zaitez
Prest!-en
tel. 94 447 10 42
bilbokoaldizkariak@gmail.com

△ 7 △ L △
TATTOO STUDIO
T X S
Errondoko kalea z/g. Ibarrekolanda
tlf. 640 903 311
instagram: @azala.tattoo

YVES ROCHER
FRANCE
Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303



Optica
Avenda
Agirre Lehendakaria, 147 Tfonos:
SAN INAZIO 94 475 11 24


ATXURI
TABERNA
Luzarra 1
Deustu
946 75 40 17

BREST
kafetegia
Blas de Otero, 5
Tfnoa: 94 447 95 43

Alonso Pertsianak
Plaza Celestino M^a del Arenal, 12
48015 Deustu-Bilbao
Tel.: 656 410 475
alonsoper@outlook.com



Urrunago zertarako?
Deustuko Liburudenda
San Pedro Plaza 4



Yoki Berri
Taberna
Good vives!
Luzarra, 6 - Deustu
@tokiberritaberna

1924tik Deustun
Florería
La Flor
Julio Urquijo 3 - Deustu
94 475 18 29
Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaumartze
jantziak... garbitzen ditugu



artez
euskarazko zerbizua
Probatu
herrizki.eus
ANDROID APP Google play
App Store

Ramon y Cajal, 8 behea
48014 Deustu
tel. 94 475 22 33
matxintxu@euskalnet.net
Matxintxu
aek ■ euskaltegia
Matrikula zaitez! **aek**

Nailan
Parquetak - Bamizak
Morgan kalea z/g
48014 Deustu - Bilbo
tfno: 94 475 67 84
nailanparquet@euskalnet.net

RONDOKO
HORTZ KLINIKA
Iratxe Jimenez Bobadilla
ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855
Odontologia orokorra eta prebentiboa
Urte eta helduak
Tratamendu estetikoak eta garbiketa
Peridotzia eta protesi kengarriak
Ortodontzia
PADI
OSAKIDETZA
Errondoko z/g, SAN INAZIO
94 475 5932
E.P.S. 425/97



Bitxidenda
Sabin
Erlojudenda
Rafaela de Ibarra, 6
Tfnoa 94 475 63 16

PERSIANAS
KM
CERRAMIENTOS
Deitu eta Ikusi!!
PERTSIANAK ETA ITXIDURAK
Araneke, 28 - 48014 Bilbao
TEL. 94.447.70.32
E-MAIL: persianaskm@persianaskm.com
www.persianaskm.com

BIDAURRE
elektrizitate eta margo-lanak
2daurrelan@gmail.com
669 42 76 23


**Nola imajinatzen
dituzu Deustualdeko
gune autogestionatuak
10 urte barru?**



**Xabi
Erandiogoikoa**

Aukera gehiago ikusten ditut San Inazioko Errondoko bizirik mantentzeko Deustuko Gazte Lokala baino. Deustun etsaia etxean daukagu: burges asko eta alkatea bertokoa.



**Eneko
Deustu**

Daudenak ez egotekotan, espero dut beste batzuk egotea.



**Gerizeti
San Inazio**

Egongo dira. Ingurua ez denez hobetuko, txarrera egin baino, beharrezkoak izango dira.



**Olatz
Ibarrekolanda**

Egun dugun egoera edo okerragoa izango dugula imajinatzen dut. Zailagoa izango da okupatzea eta gune autogestionatuak kudeatzea. Hala ere, gustatuko litzaidake gazte mugimenduak beste adin bateko jendea eta beste errealitate bat duena erakartzea.



**Jon
San Inazio**

Gakoa auzokideen artean lortzen den babesean dago. Auzoa proiektuarekin lotzen bada, espazioaren izaerak iraungo du.



**Bego
Deustu**

Belaunaldi berrien aurrera-pausoekin betiko erresistentzia bermatzen.



harkua bete herna

>> MODA

AUZOAN ERROTUA, ETA HARATAGO

Gorka Alvarez (@gorkaalvarez_x_48015) 2002 urtean jaiotako 'sanitarra' da. Zaila da berari buruz hitz egitea auzoaren figura gonaipatu gabe, berak ere argi uzten du: San Inaziokoa izateak eragina izan du bere bizitzan. Bere arropa marka sortu zuenean, 48015 zenbakia aukeratu zuen bere jantzi ia guztietan agertzeko. Arratsalde bat berarekin igaro eta gero, beste zenbait gauza argitu dizkigu.

Testua:

Andoni
Lopez Virues

Argazkiak:

Gorka
Alvarez

Gaztea eta Arte Ederretako ikaslea. Arropa izan da bere pasioa txikia zenetik. Gogora ekarri du 12 urte zituela kolore biziz janzten zen garaia. Gustuko zuelako, eta inori azalpenik zor ez ziolako, berak ez dizkiolako inori eskatzen.

16 urte zituelarik erabaki zuen joste-tailer bate-ra apuntatzea. Aurkitu zituen ikaskideak ez ziren bera bezalakoak: emakumeak, bera baino askoz nagusiagoak eta oihaletan diru asko gastatzen zutenak. Berak azkenengo horrekin ez zuen bat egiten. Nahiago zuen ahaztuta zituen arropak erabiltzea beste berri batzuk sortzeko. Momentutik ez dio josteari utzi, eta, nahiz eta fama hartu duen 48015 posta-kodearekin arropak egiteagatik, bere prenda propioak ere sortzen ditu. 16 urte bete zituenean ikastaro horretan eman zuen izena, baina heldu zen unea non berak bere kabuz aritu nahi zuen. Orduan esan zuen etxean josteko makina bat erosi nahi zuela, eta eskerrak. Hilabete batzuk geroago guztiok konfinatu gintuzten.

Bere lanari buruz hitz egiterakoan, kontzeptuari ematen dio garrantzia, eta berarentzat Sani baino zabalagoa da '48015' kontzeptua. Egun denaren eraikuntzan eragina izan duen egunerokotasun bezala definitzen du, eta zenbaki hori aplikagarria da San Inazioko mugetatik kanpo.

Bere webgunearen bidez (gorkaalvarez.com) saltzen duen arropa bitan zatitzen du: alde batetik, *merchandisinga*, eta, beste batetik, era ezberdinetan lortzen dituen arropak eta oihalak birmoldatuz egin-dakoak. Kontzeptu asko nahasten dira bere estiloa eta lan egiteko modua definitzen dituenear: arropa

faltsua eta merkea, kolore biziak, modagatik sentitzen zuen kuriositatea, baita bere ingurua ere: hiriaren egoera sozioekonomikoa, adibidez.

Azoka txikietan parte hartzetik bere webgune propioa sortze-ra emandako pausua oraindik ez du sinesten. Brixol Recordsen jarri zuen behin bere postua, eta hiru egunetan zeukan guztia saldu zuen. Hori pentsaezina bazen berarentzat, gaur egun bizi duena ere ezin du azaldu. Zorte ona izan duela esaten du, baina atzetik dagoen lan (fisiko eta mental) guztia, aldi berean, ezin du kaña batek irauten duen denboran azaldu.

Zaila egiten zaio berari buruz era isolatuan hitz egitea. Bere kuadrillak auzoan '48015' ezizena hartu du, baina bera da ezizena zuzentzen duena. Bere lagunaren artean kultura lantzen duen talde horri Under Effects izena jarri diote. Zorte ona izan duela esaten du Gorkak, lagun onak dituelako, bai arlo pertsonalean, bai arlo kulturean.

Epe laburrean zer egiteko geratzen zaion galdetzen diotenean argi dauka erantzuna: aitona janztea eta bere markarako modelo bihurtzea. Izan ere, auzoa eraikitzen lan egin zuen igeltseroa gaur egun bere gauzak egiteko modua definitzen laguntzen diona da.





Musika – Uger – Lehengo lepotik burua

Laster argitaratuko du Bilboko rock taldeak bere hirugarren diskoa. Aurrerapen gisara lehen abestiaren bideoklipa aurkeztu dute, *Xedea eta fedea* izeneko. *Lehengo lepotik* burua izeneko LPa plataforma digitaletan kaleratuko dute lehenengo, eta fisikoan aurrerago. Borja Arbaizak ekoitzi du, Iñigo Escauriazak nahasi eta El Submarino recordsen grabatu dute lana. Euskarazko bederatzi abestik osatzen dute lana eta taldekideen artean bi dira deustuarrek: Uri eta Fiker Ibarrekolanda-San Inaziokoa.



Jolasak

Era.eus webgunean euskaraz ikasten duten haurren gurasoei laguntza eta baliabideak daude eskura, seme-alaben ikas-prozesua osatzeko. Nafarroako toki-entitateetako 28 euskara zerbitzuek sortu dute elkar-lanean. Denetarik materiala bildu dute webgunean, erabiltzeko erraza eta ondo sailkatuta. Horien artean *Hitziki* aplikazioa aurkitu daiteke.



Ikus-entzunezkoak – Daniel/a/

Gazteak ekoizitako proiektu transmedia da Daniellal. Irailean aurkeztu zuten hainbat bidetatik osatutako istorioa: hiru podcast, sei ataleko serie digitala, kontzertu bat eta sare sozialetako jarraipena. Nora Alberdik zuzendu du Mikel Ayllonen gidioia, eta Leire Ormazabal deustuarra da protagonistetako bat. Serieak genero identitatea lantzen du gazteen ikuspuntutik.



KREMLINEKO GAU GIROA INDARBERRITUTA ITZULI DA

Ez da erreza Kremlin aretoa definitzea. Gauza asko da. Gaueko taberna bat. Topagune bat. Musika ez komertziala. Antzerkia. DJ saioak. Sortzaileen txokoa. Artea. Dantza. Jaia. Eta Nekane, Muji eta Peñaren bizimodua. Deustualdekoak dira azken biak eta barra atzean jartzen duten pasio eta eraginkortasun berarekin erantzun dituzte gure galderak.

Testua: Nerea Olaziregi

Argazkiak: Nerea Olaziregi eta Kremlin

Duela sei urte sortu zuten proiektua Maiatzaren biko kalearen 18.ean Bilbori eszena berri bat eskaintzeko asmoz. “Bilbori lotuta eta mundura zabalik”, azpimarratu du Peñak. “Orduan musika elektronikoa ez zen apenas entzuten gurean eta toki bat egin nahi izan genion, rock, funk eta hip-hoparekin batera”. “Antzerkiak ere leku berezia izan du gurean hasieratik - dio Mujik- . Azken urteetan, hileko bigarren ostiraletan inprobisazio saioak antolatu ditugu eta kontzertuak baino arrakastatsua- goak dira”.

Programazioa mimo handiz zaindu dute hasieratik, estetika eta irudia bezala. Euskararen presentzia-

ri ere garrantzi handia ematen diote. “Identitate propioa” sortu nahi dute horrela, eta, pandemiak proiektua gogor jo duen arren, artisten eskuzabal- tasun eta jendearen elkartasunari esker, gogotsu eta indarberriturik ireki dituzte berriz ateak ohiko ordutegian. “Gogorra izan da. Itxita gintuztela, gas- tuei aurre egin behar genien eta 5. urteurrenare- kin, bonu laguntzen truke, kamisetak eta poltsak atera genituen eta jendearen erantzuna itzela izan zen. Horri esker egin dugu aurrera. Oso polita izan da bezeroa ez denak ere Kremlin salbatu nahi iza- tea”, diote harro.

Aretoa txiki geratu zaiela aitortu dute. Teknikoki ere




Peña eta Muji Deustuko Erriberan.

mugak dituzte. “Ezin dugu kontzertuetan bateria bat sartu adibidez, goiko auzokidearekin ditugun arazoengatik”, azaldu du Mujik. “Eta kokapenak ez du laguntzen”, gaineratu du Peñak. “El Correo, udaltzain eta alkatearentzat gure kalea Bilboko arriskutsuenetarikoa bat da. Hori dela eta, jazarpen polizial eta instituzionala handia da. Gainera, Bilboko jai guñeetatik kanpo dago, jendea bereziki etorri behar da honaino”. Baina hala ere, gaur lokala jendez gainezka dago.

Ostirala da eta Deustutik taxiz hurbildu gara bertara. Kanpo aldean erretzen dagoen jendearen artean sartu eta Leninen irudiarekin egin dugu topo sarreran. Txapela eta takoi gorriak ditu. Barraren ondoan, San Inazioako kuadrilla solasean. Horma irudian musukatzen ari diren nekazari eta soldadua lekuko. Eta jende asko dantzatzeko DJak jartzen duen erritmoa jarraitzen zein ez. Eta gu ere, duela gutxi arte kutxa eta egurrez inprobisatutako mahaiz eta aulkiz beteta egon den “pistan” galdu gara. Aspaldiko sentsazio eta sorpresa asko topatu ditugu. Bilboko jende ezaguna. Deustuarrak. Aniztasuna. Sintonia. Tarteka, denok DJ K-Billyri begira, eskuak altxatuta, zuzeneko kontzertu batean egongo bagina bezala. Hurbilketa. Dantza. Jolasa.

Konturatu orduko musika itzali egin da eta argiak piztu dira. Albo bateko horman Peñak margotuta Sestaoko langileak arropa garbitzen ikusi ditugu. Sobiet iraultza eta Bilbo industrialak gogora ekartzen diguten kartelak aurrez aurre ditugu. Komunetik pasatu gara. Bertako aldarri eta poesiek inguratu gaituzte eta “Kremlinaren gertatzen dena Kremlinaren gertatzen da” leloari jarraituz, honaino gure kronika. Hurbildu eta zuzenean dastatu. Merezi du.



TRATANDO DE HACER UNA OBRA QUE CAMBIE EL MUNDO

azaroaren 5etik
abenduaren 5era

Testuak: TEATRO LA RE-SENTIDA

Zuzendaritza: JAVIER LILERA

Antzezleak: NURIA ADIL, A MINQUEZ, AINHOA ARTETXE URIARTE, GRACIELA DÍAZ, JUANA LÓR

www.pabellon6.org

P6

Four women are shown from the chest up, wearing blue and white patterned tops. They have pink face paint on their cheeks and lips. They are standing in a row against a dark background.



PINTXODROMOA

>>SUKALDARITZA

Olagarroa

Madariaga etorbideko 10. zenbakian urtea bete berri duen Akeita Gozora gerturatu gara urrian. Izenak kontrakoa iradokitzen duen arren, galiziar produktuak dira bertan nagusi. Joelek eta Sarak eman digute euren berri.

Zailtasun maila: ertaina

Egiteko denbora: 5 kiloko olagarroa prestatzeko ordu eta 40 minutu

Prezioa: errazio handia 22 €, txikia 14€

Berezitasuna: feira erara prestatzen dute

Kontu batzuk

Urrian ospatu zuten Akeita Gozoren lehen urteurrena Joelek eta Sarak. Joelen familia Galiziako kostaldekoa da, horregatik betidanik edan du itsasoko bizimodutik. Hortik dator olagarroaren garrantzia tabernan, baita gainerako beste jaki guztiena ere: enpanadak, txerri belarriak, lakoia titi-gaztarekin, olagarro ala zamburiña kroketak, zamburiñak... Egunero izaten dituzte tabernan salgai, beste hainbat pintxo eta bokatekin batera.

Akeita Gozoko Joel eta Sara.



AKEITA GOZO

Madariaga etorbidea 1

Asteazkenetik 07:30etik 23:00etara
Asteburuetan 01:00 arte
Asteazkenetan eta igande arratsaldetan itxita

Instagram eta FaceBook: @akeitagozo
akeitagozo@gmail.com

667 93 85 63 / 629 18 74 91



Zelan egin?

Lehenik eta behin, ura berotzen jarri behar da lapiko batean. Irakiterakoan olagarroa sartu eta hiru aldiz jarraian eskaldatu. Horren ostean, berriro sartu olagarroa uretan. Ura berriro irakiten hasten denetik 20 minutu izango dugu uretan kilo bakoitzeko. Hau da, kilo bateko olagarroa egosteko 20 minutu, bi kilokoarentzako, 40, eta horrela. Eginda dagoen jakiteko, sardexka sartu olagarroan. Ez du bigun egon behar, sardexka sartzeko beste, baina gogor. Gero, uretan utzi daiteke nahi beste.

Beti aurkeztu egurrezko ohol batean. Aukeran, aurretik egositako patatak jarri daitezke oinarrian. Gero, olagarroa moztu eta gaineratu. Amaitzeko, gatz lodia, piperrautsa (pikantea zein ez, gustuen arabera), eta olio gaineratu (hobe oliba-olio birjina bada). Joelen piperrauts gogokoenak De la Vera eta Mendiko markakoak dira.

OSAGAIK

Olagarroa
Patata
Gatz lodia
Oliba-olio birjina
Pipermina



Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!

Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan...



Ramon y Cajal, 24
 DEUSTUA

Tfnoa: 94 447 45 00



San Pedro plazako
 frontoiaren atzean



**ZURE PINTXO
 ONENAK GUREKIN
 KONPARTITZEKO**

Prest?

AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN



kultur txotx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa



HODEI TORRES

Ikusi makusi

EMAKUMEAK BADIRA

Oraingoan kritikarik ez, deia egitera nator, (H)emen elkarte eta *Zinemakumeak gara!* jardunaldiak ezagutu ditzazuen. Beharrezkoa iruditzen zait, kontuan hartuta gurean, oso gertu gainera, zinema eta arte eszenikoen eskolak daudela. Artearen munduan, orokorrean, oso garrantzitsuak dira osatzen ditugun sareak, proiektu berriak ezagutu eta aurrera eramateko, eta batez ere, lan prekarioetatik irteteko. Emakumea baldin bazara, eta ikus entzunezko edo arte eszenikoen munduan murgilduta bazaude, are gehiago.

Nahiz eta zinema eta arte eszenikoen ikasketak egiten ari direnen erdia baino gehiago emakumeak izan, proiektu askoren kredituak irakurtzean, konturatuko gara emakumeen izen gutxi topatzen ditugula. Egia da azkenaldian hobetzen ari dela, eta emakumeek elkar-tzearen indarra ikusi dutela eta gero eta gehiago direla, baina oraindik bidea dago egiteko.

Horregatik, emakumeek, sortzaileek edo ikasleak zaretenek, (H)emen elkartearen lagunak dituzue, eta mundu honetan gehiago murgiltzeko eta elkarlanak hasteko txoko beroa topako duzue. Emakumeen ikusgarritasuna bultzatu, eta sortzaileen arteko sareak indartzeko jaio zen, eta horretan dihardute gogotsu. Lara Izagirre, Olatz Beobide eta Tessa Andonegi daude elkar-tearen buruan, baina beste hainbat bazkide dira. Haien webgunean eta sareetan dituzue kontaktuak eta egiten dituzten tailer edo berrien informazioa.

Bestalde, *Zinemakumeak gara!* jardunaldiak izan dira egunotan. Bertan, hainbat gauza eskaini dizkigute emakumeen eskutik: bideoekreazio-tailerra, emanaldiak, proiektzioak eta hitzaldiak, besteak beste. Aurten bertaratzeko aukera izan ez baduzue, adi hurrengo urteko jardunaldiei.

GAZTETXEARI

Doinua: Zuek horrela ikusi eta



JULENE ITURBE EPELDE

Elorri bertso-eskolako kidea

Herriko gazte, sortzaile, talde askoren lehen eszena tailer, hitzaldi, azoka, biltzar, parranda edo zinema, mundu berri bat amestu duen ororen oihu ozena... Herritik herriarena, belaunaldiak barrena helduleku izan dena, babesleku zein aterpe goxo ohi da Gaztetxearena, eskuz, eskutik eta eskura errazago baita dena

Idea berrien lorategi ta asmoen laborategi, nahiz eta joan urte beste poz, urte adina izerdi, eman ta jaso, jaso ta eman nola ez diren alde bi, katebegiz katebegi, inoiz ez denez gehiegi, gaur arte gisara segi Deustu eraikiz, Deustu astinduz, ituan joz erdiz erdi, urtemuga hau, muga den hortan, mugarri bihurtu bedi



errigora

errigora.eus

aek



ikastolenelkartea



Sortzen

urriak 23 - azaroak 11

Nafar hegoaldeko uzta
euskarari puzka

Herriak egiten du herria



eskatu saskiak
eta eman hauspoa euskarari



PREST!en
babeleen artean
2 saski zozketan!



eko



Bilbon euskaraz



Bilbao



www.bilbaeuskaraz.eus



EUSKARA, BIHOTZETIK EZPAINETARA



Barruan daramazu kirol zaletasuna,
onena emateko gaitasuna, ahaleginduz gozatzea.
Eta barruan daramazu euskara ere,
kirola barrutik bizitzeko.

*Euskadi,
nagolana*



ERROLDARITZA
GOBERNO BASCO